

ELKARTEEN ERREGISTROA: XEDEA ETA ESPARRUA

Beren jarduna nagusiki Euskadin gauzatzen duten eta beren estatutuetan halaxe jasota duten Elkarteak eta Elkarte Batasunen eratzea, aldaketa eta desegitea erregistratzeaz arduratzen den bulego publikoa da Elkartearen Erregistroa.

Erregistro horretan izena ematek salbuetsita daude erakunde politikoak, sindikatu erakundeak, enpresaburu erakundeak, elizak, sineste erlijiosoak eta komunitate erlijiosoak, kirol federazioak, ondasun eta jabe elkarteak, elkarte kontratuak arautzen dituen erakundeak, kooperatibak, mutualitateak, aldi baterako enpresa elkarteak eta interes ekonomikoko taldeak.

ELKARTEAK ERATZEA: ERATZE AKTA

Elkarteak eratzeko, gutxienez hiru lagunen arteko akordioa beharko da; elkartzeko diren kide guztiek onetsitako Estatu batzuek hornitutako erakunde antolatu bat eratzeko asmoa dutela dioen akordio bat, hain zuzen. Akordioa Akta batean formalizatu beharra dago, dokumentu publiko nahiz pribatu baten bidez; akta horretan elkartearen eratzeko asmoa adierazi behar da, eta entitatearen arautuko duten estatutuen testua erantsi behar zaio.

IZENA

Elkartearen izenak ezin izango du horien nortasunari, motari edo nondik norakoari buruz nahasmendurik eragin dezakeen hitzik edo esamolderik barne hartu; bereziki, bestelako pertsona juridikoen berezko hitzak, kontzeptuak edo ikurrak, akronimoak eta antzekoak, elkarte mailakoak izan edo ez.

Ez dira onartuko legeen aurkako esamoldeak barne hartzen dituzten izenak edo pertsonen oinarrizko eskubideak urratzea eragin dezaketenak.

Orobat, elkarteak ezin izango du honako hauen izena eraman, ez eta horien antzeko izena eraman ere, baldin eta nahasmendua eragin badezake: dagokion Erregistroan aldez aurretik erregistratu diren elkarteak; beste edozein pertsona juridiko publiko edo pribatu; aldez aurretiko erakundeak, Espainiako nazionalitatea izan ala ez; pertsona fisikoak, interesatuak edo haren ondorengoek propio baimena ematen ez badute; edo erregistratutako marka nabarmenak, horien titularrek horretarako eskaera egin edo baimena ematen ez badute behintzat.

BAZKIDEAK

Pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, izan daitezke elkartearen eratzailerak eta kideak. Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 3. artikuluan eta ekainaren 22ko Euskadiko Elkartearen buruzko 7/2002 Legearen azaltzen diren irizpideei jarraituz.

Pertsona fisikoek jarduteko gaitasuna eduki behar dute, eta ez dute egon behar inolako legezko baldintza bereziren mende, eskubidea gauzatzeko.

Hamalau urtetik gorako adingabe ez-emantzipatuek beren ahalmena ordezkatzeko ardura duten pertsonen baimena behar dute, dokumentu bidez egiaztatuta.

Elkarte izaera duten pertsona juridikoen dagokien organo eskumendunaren berariazko hitzarmena beharko dute, eta erakunde izaera dutenek, berriz, dagokien zuzendaritza organoarena.

ESTATUTUAK. EDUKIA

Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 7. artikuluan (estatu guztian zuzenean ezartzekoa da artikulua hori) eta ekainaren 22ko Euskadiko Elkartearen buruzko 7/2002 Legearen ezartzen denari jarraituz.

“Estatutuetan, honako alderdi hauek adierazi behar dira, gutxienez:

- Elkartearen izena. Estatutuetan aipatzen diren xedeei edo xede horien artean nagusi denari erreferentzia egin behar dio, eta, horrez gainera, erregistroan erregistratuta dauden edo etorkizunean erregistra daitezkeen gainerako elkarteetatik bereiziko duen izen bat ere behar du. Xedeen erreferentzia ahalik eta zehatzena izatea komeni da.
- Elkartearen egoitza. Elkartearen egoitza toki publikoa bada, dagokionak helburu horretarako emandako baimenaren egiaztapen bat erantsi beharko da. Bazkide baten egoitza bada, behin-behineko egoitza dela gehitu beharko da.
- Elkartearen xedeak eta jarduerak, zehatz-mehatz adierazita.
- Bere egitekoak nagusiki beteko dituen lurralde esparrua, ez EAE baino zabalagoa.
- Elkartearen iraupena, baldin eta ez bada denbora mugarik gabe eraturitako elkartearen.

- Gobernu organoak eta ordezkariak, horien osaera, arauak eta kideak hautatzeko eta ordezkatzeko prozedurak, beren betebeharrak, karguen iraupena, kargu uzteen arrazoiak, erabakiak eta akordioak hartzeko eta exekutatzeko modua, eta horiek ziurtatzeko eskumena duten pertsonak edo organoak, eta organo horiek legez erabazteko baldintzak, baita gobernu organoen bileretarako deialdiak egiteko edo gai zerrendarako gaiak proposatzeko behar den bazkide kopurua ere.
- Bazkideak onartzeko, horiei baja emateko eta horiek elkartetik aldentzeko betebeharrak eta modalitateak eta, hala dagokionean, bazkide motak. Bazkideek kuotak ez ordaintzeak ekar ditzakeen ondorioak ere erantsi daitezke.
- Administrazio, kontularitza eta dokumentazio erregimena, baita elkartearen ekitaldia ixteko data ere.
- Zigor erregimena.
- Bazkideen eskubideak eta betebeharrak, eta, hala dagokionean, bazkide modalitate bakoitzarenak.
- Hasierako ondarea eta baliatu ahal izango dituen bitarteko ekonomikoak.
- Estatutuak aldatzeko prozedura.
- Elkartea desegiteko arrazoiak eta, halakoetan, ondareari emango zaion erabilera, irabazi asmorik gabeko elkartearen izaera inola ere aldatu ezingo duena.

Estatutuetan sustatzaileek egoki irizten dieten beste edozein lege xedapen eta baldintza ere erantsi daitezke, betiere legearen kontrakoak ez badira eta elkartea eratzeko printzipioei kontra egiten ez badiete.

ERREGISTRATZEA
ONDORIOAK

Elkarteak publizitate xedeetarako ez beste ezertarako erregistratuko dira Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistroan. Horretarako, Eratze Aktaren bi ale aurkeztu beharko dira Erregistroan, bazkide eratzailleen sinadura originalekin, baita Erakundearen Estutuen bi ale ere, orrialde guztiek Zuzendaritza Batzordeko Lehendakariaren eta Idazkariaren sinadura originalak dituztela. Hori guztia aurkezteaz gainera, eskaria igorri behar da Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saileko Ikerketa eta Erregimen Juridikoko Zuzendaritzara atxikitako Elkarten Erregistrora.

Aurrez aipatutako dokumentazioari Zuzendaritza Batzordeko kideen Nortasun Agiri Nazionalen fotokopiak erantsi behar zaizkio.

Erregistratzeak Elkartearen Eratzea eta Estatutuak publiko egiten ditu.

ELKARTEEN ERREGISTROA
BULEGOAK

ARABA:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saila
Donostia, 1
01010-GASTEIZ
Telefona: 945-019087
e-maila: just-jurid-alava@ej-gv.es

GIPUZKOA:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saila
Gasteiz, 3-3º
20018-DONOSTIA
Telefona: 943-022951/ 943-022952
e-maila: just-jurid-gipuzkoa@ej-gv.es

BIZKAIA:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saila
Kale Nagusia, 85 beheko solairua
48011-BILBO
Telefona: 94-4031371/ 94-4031372
e-maila: just-jurid-bizkaia@ej-gv.es <mailto:just-jurid-gipuzkoa@ej-gv.es>

IZEN-ABIZENAK:
NAN: HELBIDEA:

HERRIA: POSTA KODEA: TEL:
ELKARTEAREN IZENA:

Adin nagusikoa naiz eta, goian aipatutako elkartearen izenean, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta ekainaren 22ko Euskadiko Elkarteei buruzko 7/2007 Legean (Legebiltzarrak onartua) ezarritakoei jarraituz, goian aipatutako elkarte eratu dela eta beharrezko diren agiriak aurkezten ditudala, hots:

- Eratze Aktaren bi ale.
- Estatutuen bi ale.
- Sustatzaileen NANen fotokopiak.

Hori dela eta,

ESKATZEN DUT

Elkarte hori goian aipatutako legea arauak aurreikusten duen Elkarteen Erregistroan sartzea.

Donostian,(e)korenan

Izenpea:

ELKARTEEN ERREGISTROAREN GIPUZKOAKO BULEGOA.

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA.

Gasteiz, 3-3º

20018- DONOSTIA

ELKARTEAREN ERATZE AKTA

..... jauna/andrea
NAN zbkia:
HELBIDEA:
HERRITARTASUN:
SINADURA.....

.....n, 20.....ko
.....ren(e)an,etan,
hemen alboan azaltzen diren pertsonak,
denak adinez nagusiak eta euren izenean,
bildu dira.

..... jauna/andrea
NAN zbkia:
HELBIDEA:
HERRITARTASUN:
SINADURA.....

Bilera gidatzeko,
.....
jauna/andrea presidente aukeratu da, eta
..... jauna/andrea,
idazkari.

..... jauna/andrea
NAN zbkia:
HELBIDEA:
HERRITARTASUN:
SINADURA.....

Presidenteak hitza hartu du, eta adierazi du
ekitaldiaren helburua dela Elkartzeko
Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko
1/2002 Lege Organikoaren eta Legebiltzarrak
onartu eta uztailaren 12ko 134. EHAA
argitara emandako ekainaren 22ko Euskadiko
Elkarteei buruzko 7/2007 Legearen arabera
elkartea sortzea.

..... jauna/andrea
NAN zbkia:
HELBIDEA:
HERRITARTASUN:
SINADURA.....

Jarraian elkartea arautuko duten Estatutuak
irakurri dira eta ondoren horien edukia
buruzko eztabaida saioa zabaldu da.

(Eratzaile gehiago egonez gero, atzean
jarraitu zerrenda osatzen)

Eztabaida egin ondoren, honako erabakiok hartu dira, aho batez:

LEHENA:
...izena izango duen Elkartea sortzea. Elkarteak herrian izango du
egoitza, eta Estatutuetak artikuluan adierazten dena betetzea izango du helburua. Elkartea
zabalik izango da bazkide berriak onartzeko.

BIGARRENA: Elkartearen barne erregimena eta jarduera arautuko dituzten Estatutuak onartzea. Akta
honi erantsita daude estatutu horiek.

HIRUGARRENA: Elkartearen kudeaketa aruntaz arduratuko den Zuzendaritza Batzordea izendatzea.
Batzordeko kideen izenak eta karguak ere dokumentu honi erantsita daude.

LAUGARRENA: Akta hau izenpetzen dutenen ordezkari modura,
.....jauna/andrea ahalordetzea, eraturako erakundea publizitate
xedeetarako Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan erregistratzeko beharrezko eta komenigarri
gerta daitezkeen gestioak egin ditzan. Horretarako, bazkide guztiek sinatutako Eratze Akta honen bi ale
eta Zuzendaritza Batzordeko presidentek eta idazkariak orrialde guztietan sinatutako Estatutuak
aurkeztuko dira.

Eta ez dagoenez beste aztergairik, batzarra amaitutzat eman da egun bereko(e)tan.

ELKARTEAREN ZUZENDARITZA BATZORDEA

LEHENDAKARIA:JAUNA/ANDREA
.....
NAN zbkia.:
HELBIDEA.....

LEHENDAKARIORDEA:JAUNA/ANDREA
.....
NAN zbkia.:
HELBIDEA.....

IDAZKARIA:JAUNA/ANDREA
.....
NAN zbkia.:
HELBIDEA.....

DIRUZAINA:JAUNA/ANDREA
.....
NAN zbkia.:
HELBIDEA.....

ELEDUNA:JAUNA/ANDREA
.....
NAN zbkia.:
HELBIDEA.....

ELEDUNA:JAUNA/ANDREA
.....
NAN zbkia.:
HELBIDEA.....

ELEDUNA:JAUNA/ANDREA
.....
NAN zbkia.:
HELBIDEA.....

ELEDUNA:JAUNA/ANDREA
.....
NAN zbkia.:
HELBIDEA.....

ESTATUTU EREDUA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

Ekainaren 22ko Euskadiko Elkarteei buruzko 7/2007 Legeak dioenaren arabera, Administrazioak Elkartea sortzeko eta bideratzeko behar adinako aholkularitza teknikoa eta laguntza eman beharko dio elkarte proiektu bat bere gain hartzen duen edonori.

Legezko manu hori betetzeko, Estatutu Eredua bat eratu da, Erakundearen jarduna arautuko duten estatutu arauak lantzeko garaian gida edo laguntza modura erabiltzeko. Hori dela-eta, inola ere ez da hartu behar eredu hori Elkarteari bere burua nahierara antolatzeke gaitasuna baldintzatzen edo mugatzen dion arau gisa; izan ere, Elkarteak beste organo edo/eta batzorde batzuk sartu ahal izango ditu Estatutuetan, bileren erregimena eta deialdiaren prozedura nahierara antolatu ahal izango du, akordioak hartzeko nahi duen quoruma eta gehiengoak finkatu ahal izango ditu, eta, indarrean dagoen araudiaren barruan betiere, egoki irizten dien antolaketa eta funtzionamendu alderdi guztiak zehaztu ahal izango ditu.

Bestalde, erabiltzaileek Estatutu Eredua hobeto ulertzeko, honako zehaztapen hauek erantsi dira:

- a) Oin ohar batzuk erantsi dira estatutuen testuan, baina azalpenezkoak dira, soilik; alegia, Elkarteen mekanikarekin eta funtzionamenduarekin lotura duten alderdiak argitzeko xedea besterik ez dute.
- b) 9., 10., 13., 14., 15., 16., 31., 35., 39., 40. eta 44. artikuluetan, tarte zuriak utzi dira, Elkarteak askatasunez erabaki ditzan bere quorumak, partaidetzak, epeak eta terminoak.

EZ BETE ESTATUTU EREDUA:

**ESTATUTU EREDUTIK DEIEN ZENBAKIA ETA OIN OHARRAK
EZABATU BEHAR DIRA.**

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHEN KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.-¹ izeneko elkarte, irabazi asmorik gabea, eratu da, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak eta Euskadiko Autonomia Estatutuko 9. eta 10.13 artikuluetan zehazten denari jarraituz eta Eusko Legebiltzarrak onartutako ekainaren 22ko Euskadiko Elkarteei buruzko 7/2007 Legeak diotenaren arabera.

Elkaratek honako araubide hau izango du: Elkarateen Legea, Estatutu hauek berak (Legearen aurkakoak ez badira), Elkaratearen zuzendaritza organoek behar bezala hartutako baliozko erabakiak (Legearen edo Estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak xedatzen dituen arauak (azken horiek osagarri modura baino ez).

XEDEAK

2. artikulua.- Honako hauek dira Elkarate honen xedeak: ²
.....
.....
.....

Xede horiek betetzeko, honako jarduera hauek eramango ditu aurrera, indarrean dauden legezko baldintzak beteta:

.....
.....
.....

Aurreko atalean deskribatutako jardueren kalterik gabe, Elkarateak honako hauek ere egin ahal izango ditu, bere xedeak betetzeko:

- Orotariko jarduera ekonomikoak, bere xedeak betetzera bideratuak edo helburu hori betetzeko bitartekoak eskuratzera bideratuak.
- Orotariko ondasunak eskuratzera eta edukitzea, edozein titulutakoak; eta orotariko ekintzak eta kontratuak gauzatzea.
- Legeekin eta bere Estatutuekin bat datozen edonolako ekintzak.

SOZIJETATE EGOITZA

3. artikulua.- Elkaratearen egoitza nagusiaren helbidea honako hau izango da:
.....

¹ Elkarateen izenak ezin izango du horien nortasunari, motari edo nondik norakoari buruz nahasmendurik eragin dezakeen hitzik edo esamoldeirik barne hartu; bereziki, bestelako pertsona juridikoen berezko hitzak, kontzeptuak edo ikurrak, akronimoak eta antzekoak, elkarte mailakoak izan edo ez.

Ez dira onartuko legeen aurkako esamoldeak barne hartzen dituzten izenak edo pertsonen oinarritzko eskubideak urratzea eragin dezaketanak.

Orobat, elkarateak ezin izango du honako hauen izena eraman, ez eta horien antzeko izena eraman ere, baldin eta nahasmendua eragin badezake: dagokion Erregistroan aldez aurretik erregistratu diren elkarateak; beste edozein pertsona juridiko publiko edo pribatu; aldez aurretiko erakundeak, Espainiako nazionalitatea izan ala ez; pertsona fisikoak, interesatuak edo haren ondorengoek propio baimena ematen ez badute; edo erregistratutako marka nabarmenak, horien titularrek horretarako eskaera egin edo baimena ematen ez badute behintzat.

Elkaratearen izaera edo xedea direla medio, elkaratearen izenean lurralde esparruren baten izena aipatu behar denean (adibidez, probintzia, lurralde historikoa, herria, barrutiak, eremua, auzoa edo horien antzekoak), elkarte hori lurralde esparru horretan eratuta dauden edo era litezkeen antzeko beste elkarte batzuetatik bereiziko duen patronimikoren bat aukeratu beharko da, esparru horren izena elkarte horrek era eskusiboan eta desegokian beregana ez dezan.

² Adierazpen generikoak saihestu behar dira, ahalik eta deskribapen xeheena egitea komeni da.

Elkarteak beste lokal batzuk eduki ditzake, Autonomia Erkideagoaren barruan betiere, eta Batzar Orokorrak hala onartuz gero. Elkartearen egoitza eta gainerako lokalak aldatzeko erabakiak Zuzendaritza Batzordeak hitzartu behar ditu; ondoren, organo horrek helbide berria jakinarazi beharko dio Elkarteen Erregistroari.

LURRALDE ESPARRUA

4. artikulua.- Elkarteak nagusiki honako lurralde esparru honetan beteko ditu bere egitekoak:³.....

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkarteak betiko eratzen da. Ezohiko Batzar Orokorrak hala erabakiz gero baino ezingo da desegin, VI. kapituluaren aipatzen diren kasuetan, edo Legeetan aurreikusitako arrazoiren bat dela medio.⁴

Elkartearen barne antolaketa eta funtzionamendua demokratikoak izango dira, eta guztiz errespetatuko dute pluraltasuna. Erabat ezdeusak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen edozein alderdi urratzen duten hitzarmenak, estatutu xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANAK⁵

6. artikulua.- Elkartearen gobernu eta administrazio ardura kide anitzeko honako organo hauen esku egongo da⁶:
- Bazkideen Batzar Orokorra, organo gorena gisa.
 - Zuzendaritza Batzordea, kide anitzeko zuzendaritza organo iraunkor gisa.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatua izango da, eta beren borondatea adierazten duen organoa da.

Honako hauek dira Batzar Orokorraren eskumenak:

- a) Elkartearen jardura plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldirako aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onestea.
- d) Zuzendaritza Batzordeko kideak aukeratzea.
- e) Ohiko nahiz ezohiko kuotak finkatzea.⁷
- f) Estatutuak aldatzea.
- g) Elkarteak desegitea.
- h) Beste elkarte batzuekiko federazioa eta konfederazioa eratzea, edo horiek bertan behera uztea.
- i) Ondasunak eskuratzea edo besterentzea.
- j) Ordezkaritza organoetako kideen ordainsariak hitzartzea, hala dagokionean.
- k) Inongo beste organo soziali ez dagokion beste edozein.⁸

³ Ezin du izan EAEz kanpoko.

⁴ Elkarteak denbora epe jakin baterako eratzen bada, estatutuetan aditzera eman beharko da epe hori.

⁵ Elkartearen Estatutuetan eredu honetan aipatzen denaz bestelako araudi bat finkatu ahal izango da, gobernu eta administrazio organoetara dagokienez, betiere Legeari kontra egiten ez bazaio eta demokratikoa eta plurala baldin bada.

⁶ Elkarteak kide anitzeko beste organo exekutibo batzuk, beste aholkularitza organo batzuk edo lan batzorde batzuk eratu ahal izango ditu; horien eskumenak eta betebeharrak Estatutu hauetan zehaztu beharko dira, betiere.

⁷ Eskumen hau Zuzendaritza Batzordearen esku utzi dezake Batzar Orokorrak, horretarako berariazko akordio baten bidez.

⁸ Elkarteak beste eskumen batzuk eman diezazkioke Batzar Orokorrari, berariaz, edo era honetako hondar klausula baten bidez: "Batzar Orokorrari dagokio gainerako organo sozialei berariaz ez dagokien eskumen oro gauzatzea".

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilerak nahiz ezohiko bilerak egingo ditu.
9. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilera egingo du, urtean behin, gutxienez, hiru hilekoan, 7.a), b) eta c) artikuluetan aurreikusten diren akordioak hartzeko.
10. artikulua.- Batzar Orokorrak ezohiko bilera egingo du Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen duenean, bere kabuz edo bazkideen %k hala eskatuta; Batzordeak bileraren arrazoiak eta helburuak jakinarazi beharko ditu. Edonola ere, ezohiko bilera egin beharko da, ezinbestean, honako gai hauek aztertu eta horiei buruzko erabakia hartzeko:
- a) Estatutuak aldatzea.
b) Elkartea desagitea.
11. artikulua.- Batzar Orokorrarako deialdiak idatziz egingo dira, bileraren tokia, eguna eta ordua adierazita; bileran aztertuko diren gai zerrenda xehea ere erantsi beharko da. Biltzeko deialdia egiten denetik Batzarra lehen deialdian elkartzeko finkatzen den egunera hamabost eguneko epea utzi behar da, gutxienez; hala badagokio, Batzarra bigarren deialdian noiz eta non elkartuko den ere jakinaraz daiteke, baina lehen deialdiaren eta bigarrenaren artean ezin da finkatu ordubetetik beherako epea.
- Batzar Orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena biltzen denean osatuko da, lehen deialdian, eta boto eskubidea duten bazkideen edozein kopuru bilduta, bigarren deialdian.
12. artikulua.- Batzar Orokorrean, bileran elkartutako edo ordezkaturako pertsonen gehiengo sinplea beharko da akordioak hartzeko, baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Aldiz, bileran elkartutako edo ordezkaturako pertsonen gehiengo kualifikatua beharko da, baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago direnean, elkartea desagiteari, estatutuak aldatzeari, ondasunak eskuratzeari edo besterentzeari eta ordezkaritza organoko kideen ordainsariari dagozkion erabakiak hartzeko.⁹
13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi ahal izango dute beren ordezkaritza, Batzar Orokorrean parte hartu ahal izateko. Ordezkaritza hori idatziz eman beharko da, eta Batzarraren Idazkariaren esku gelditu beharko du, bilera hasi baino ordu lehenago, gutxienez. Elkartearen egoitza ez den beste hiriren batean bizi diren bazkideek posta bidez igorri ahal izango dute ordezkaritza egiaztatzen duen agiria.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen ordezkaritza organoa da, Batzar Orokorraren xedapen eta arteztarauei jarraitzen diena. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza organoa.
- Zuzendaritza Batzordea honako hauek osatzen
dute:¹⁰
- Gutxienezbildu beharko dute, elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

⁹ Elkarreak bere kabuz erabaki dezake quoruma eta akordioak hitzartzeko beharko diren gehiengoak, baina kontuan hartu behar da elkarrea desagiteko gutxieneko quorum bat finkatzen duela Legeak (Batzarrean bildutakoen gehiengo absolutuaren aldeko botoa, gutxienez). Gehiengo berezi bat ere finkatu ohi da askotan, Estatutuak aldatzeko, Batzarrean bildutakoen gehiengo absolutua, hain zuzen ere.

¹⁰ Zehatz-mehatz adierazi beharko da nork osatzen duen Zuzendaritza Batzordea. Edonola ere, Lehendakariaren, Idazkariaren eta Diruzainaren karguak arautu beharko dira. Gainera, beste kargu batzuk ere egon daitezke (Lehendakariordea, Bokalak, etab.), betiere Elkarre bakoitzaren beharren arabera.

Dena dela, ez dira bateragarriak Lehendakariaren eta Lehendakariordearen karguak, hala dagokionean, eta Idazkariaren eta/edo Diruzainaren karguak, beraz, ezin ditu pertsona berak bete.

Zuzendaritza Batzordean bokalak egonez gero, zenbat bokal dauden zehaztu beharko da, eta gutxieneko eta gehieneko kopurua ere zehaztu beharko da.

15. artikulua- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat ez bada bilera horietara joaten aldiz jarraian, edo aldizka, aldiz, horretarako arrazoirik eman gabe, utzi egin beharko du dagokion kargua.
16. artikulua- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak, eta urterako izango dira Batzordeak berariaz ezeztatu ezean; gainera, behin baino gehiagotan hautatu ahal izango dira.
- Kargu horiek ¹¹ berrituko dira.
17. artikulua- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:
- Adinduna izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean den legedian ezarritako bateraezintasun arrazoirik ez izatea.
 - Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea.
 - Elkarteko bazkide izatea ¹².
18. artikulua- Zuzendaritza Batzordekide kargua nork bere gain hartuko du, Batzar Orokorraren izendapenaren ondoren, hura onartzen edo hartzen duenean¹³.
- Dena den, Batzar Orokorrak Zuzendaritza Batzordeko kideei egun-sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.¹⁴
19. artikulua- Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:
- Agintealdia bukatzen denean.
 - Dimititzen dutenean¹⁵.
 - Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargurako ezintasun arrazoiak dituztenean.
 - Batzar Orokorrak kargugabetzea erabakiz gero, estatutu hauetako 16. artikuluan adierazitakoaren arabera.
 - Heriotza.
- Kargua uzteko arrazoia a) puntuan agertzen dena baldin bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraitu beharko dute hurrengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.
- Aldiz, kargua uzteko arrazoia b), c), d) eta e) puntuetan agertzen dena baldin bada, Zuzendaritza Batzordeak berak izendatuko du hutsik gelditutako kargua behin-behingo betetzeko norbait eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapen hori onetsi ala baliogabetu. Baliogabetzen bada, dagokion izendapena egingo da.
- Batzorde honen osaeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.
20. artikulua- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen funtzioak:
- Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.
 - Elkarteak aurrera eramango dituen ekimenak antolatzea.

¹¹ Karguak guztiz edo aldeztu berritu daitezke, baina bigarren aukera da gomendagarriena, erakundearen jardunaren jarraipena bermatzen baita horrela. Aldezko berrikuntzaren kasuan, artikulua hau honela geldituko litzateke. "Lehenengo txandan kideen %50 berrituko dira (zehazki zein ere adieraz daiteke). Bigarren txandan, berriz, gainerakoak".

¹² Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, bazkide gisa nolabaiteko antzintasuna eska daiteke.

¹³ Elkarteak ezar dezake karguaren onespina librea edo derrigorrezkoa den. Bigarren kasu horretan, kargua hartu nahi ez duenak hautatu egin beharko du kargua onartu edo elkarte utzi.

¹⁴ Zuzendaritza Batzordeko kideek karguaren arabera ordainsariak hartu badituzkete, Estatutuetan zehaztu beharko da aukera hori. Bestalde, kargu horiei dagozkien ordainsariak Batzarrak onartutako urteko kontuetan sartu beharko dira.

Horren harira, adierazi behar da elkarte bat onura publikokotzat hartzeko, besteak beste, baldintza hau bete behar dela: ordezkartza organoetako kideek ordainsariak jasotzen badituzte, ordainsari horiek ez dira funts publikoen eta dirulaguntza publikoen kontura egingo. Edonola ere, Estatutuetan azaldutakoaren arabera, horiek ordainsari egoki bat jaso ahal izango dute, baldin eta ordezkartza organoaren kide izateagatik dagokien funtzioak bestelako funtzioak betetzen badituzte.

¹⁵ Baldin eta ez bada adierazten kargua nahitaezkoa dela.

- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai zerrenda osatzea, eta Batzar Orokorrari berezi zein ohikoen deialdiak erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta dagozkien neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetan jasotzen diren aginduak interpretatzea eta haietako hutsuneak betetzea, betiere elkarteei buruz indarrean den legediari jarraituz.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, baldin eta ez badagozkio berariaz hari.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak, Lehendakariak eta, hala badagokio, Lehendakariordeak erabakitzen duten aldiro egingo ditu bilera, bere kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bileraren buru Lehendakaria izango da, edo, bertan ez balego, Lehendakariordea. Biak falta badira, berriz, batzordekide zaharrenak beteko du zeregin hori.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du Batzarrean.

Idazkariak bileren aktak egingo ditu. Agiri horiek dagozkien liburuan jasoko dira, idatziz.

PERTSONA BAKARREKO ORGANOK

LEHENDAKARIA

22. artikulua- Elkartearen Lehendakariak elkartearen legezko ordezkariak hartzen du bere gain. Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak eramango ditu aurrera. Era berean, aipaturiko bi organo horien lehendakari ere izango da.

23. artikulua- Lehendakariak honako ahalmen hauek edukiko ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egitea; bileretan sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta boto berdinketa gertatuz gero, boto ebazlea erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, eta aldi berean, elkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Balioz erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sor daitezkeen premiazko arazoak konpontzea, eta Zuzendaritza Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira haren eskumen eksklusiboak.

LEHENDAKARIORDEA

24. artikulua- Lehendakariordeak¹⁶ Lehendakariari lagunduko dio, eta, Lehendakariak aldi baterako ezintasuna daukanean, hura ordezkatuko du. Era berean, Lehendakariak berariaz emandako ahalmen guztiak dagozkie.

IDAZKARIA

25. artikulua- Zehazki Idazkariari dagokio elkartean sartzeko eskabideak hartzea eta bideratzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, Elkarteen alorrean indarrean dauden legezko xedapenak bete daitezzen arduratuko da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuen eta agirien edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordearen hautaketari eta elkartearen egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinarazpenak dagokion agintaritzarengana bideratuz.

¹⁶ Derrigorrezko kargua ez bada ere, arautzea komeni da, Lehendakaria ez dagoenean edo aldi baterako ezintasuna duenean elkartea ez dadin jarduerarik gabe gelditu.

DIRUZAINA

26. artikulua- Egindako sarrera eta ordainketen berri emango du Diruzainak, eta diru sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta horrek Batzar Orokorreara eramango ditu, hark onar ditzan¹⁷.

18

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTZEKO BALDINTZAK ETA MOTAK

27. artikulua- Elkarteko kide izan daitezke ¹⁹ hala nahi dutenak eta honako baldintza²⁰ hauek betetzen dituztenak ²¹
:.....
- Adinduna izatea edo adingabe emantzipatua, eta jarduteko gai izatea.
:.....
:.....
28. artikulua- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea. Idatzi hori bi bazkidek izenpetuko dute eta Lehendakariari bidaliko diote. Lehendakariak Zuzendaritza Batzordeari emango dio horren berri, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Dena den, gorako errekurtsioa jarri ahal izango da Batzar Orokorren aurrean²².
29. artikulua- Batzar Orokorren erabakiz, elkarteak Ohorezko Bazkide izendatu ahal izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren elkartearen helburuak betetzeko bertaratu ezin diren pertsonak. Bazkide horiek ohorezkoak dira soilik²³, eta beraz, ez dira legezko bazkide, ez dute elkarteko zuzendaritza eta administrazioko gobernu organoetan parte hartzeko eskubiderik, ez eta inongo betebeharririk ere²⁴.

¹⁷ Elkarrekin batzordekide kontulari bat balu, horren arduraduna izango da Kontularitzako liburuak eramatea, horiek zaintzea eta balantzeak eta aurrekontuak egitea. Kargu hori ez balu, diruzainak hartu beharko ditu bere gain zeregin horiek, Estatutuaren ageri den moduan.

¹⁸ Aurretik aipatutako karguez gainera, Elkarrekin beste batzuk ezarri ahal izango ditu, hala nola liburuzaina edo argitalpen arduraduna, zuzendari kudeatzailea, etab.

¹⁹ Pertsona fisikoak edo edozein motatako juridikoak, publikoak zein pribatuak. Pertsona fisikoak badira, adindunak izan beharko dute, adingabe emantzipatuak edo hamalau urtetik gora dituzten emantzipatu gabeko adingabeak, haren gaitasuna ordeztu behar duten pertsonen baimenarekin, agiri bidez egiaztatua, baldin eta ez badira Gazte edo Ikasle Elkarrekin.

²⁰ Bazkideak pertsona fisikoak badira, honako hau erantsi beharko da beti: adinduna izatea edo adingabe emantzipatua eta eskubide hori betetzeko inolako legezko baldintzaren mende ez egotea. Bazkide izateko eskubidea izango dute hamalau urtetik gorako adingabeek, beren ahalmenean ordezkatu behar duten pertsonen baimenarekin, agiri bidez egiaztatuta. Bazkide horiek ez dute zuzendaritza organoetan kargurik beteko, adinez nagusi izan arte. Bazkideak pertsona juridikoak badira, dagokion organoaren berariazko adostasuna beharko dute, eta instituzioak badira, beren organo zuzentzailearen akordioa, zeinetan adierazi behar den elkartean parte hartzeko nahia, eta beren izenean jardungo duenaren izendapena.

²¹ Elkarrekin askatasunez ezarri ahal izango ditu bazkide izateko beharrezkotzat jotzen dituen baldintzak, adinduna eta jarduteko gai izateaz gainera noski, legeak ezartzen baititu horiek.

²² Pertsona batek ez du bazkide izaera lortzen sartzeko eskubideak betetzen ez dituen bitartean, eskubide horiek badaude, Zuzendaritza Batzordeak ezartzen duen kopuruan eta moduan. Bermearen baldintza eta eskaera idatziz egin behar dela adierazten duen baldintza ezaba daitezke.

²³ Bazkide horiek "ohorezko" deituak dira, ohikoak elkarrekin zientifikoetan eta ikasketan edo ikerketan elkarrekin.

²⁴ Bestalde, Elkarrekin beste bazkide motak ere bereizi ahal izango ditu. Elkarrekin ohikoak dira honako kategorian hauek:

- Sortzaileak (Sortze Akta izenpetzen dutenak). Bereizketa hori ohorezkoa da bereziki, eta ez du garrantzirik eraginkortasunari dagokionez.
- Zenbakizko bazkideak eta ohikoak, kopuru mugatua dutenak bestelakoetatik bereizteko. Horiek ohikoak izaten dira ikerketaren alorrean jarduten duten Elkarrekin.
- Ohorezkoak (29. artikulua deskribatuak).
- Babesleak, Elkarrekin baliabide ekonomikoak ematen dizkietenak (emaileak), elkarrekin bestelako parte-hartzerik eduki gabe.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua- Elkartekide guztiak eskubide hauek dituzte:
- 1) Elkarkei buruzko Legearen edo estatutuen kontrako erabakien eta jardueren kontra egitea, aurkatutako erabakiaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera izan duen egunetik hasi eta 40 egun naturaleko epean.
 - 2) Elkarkearen gobernu eta ordezkari organoen osakerari, elkarkearen kontu egoerari eta haren jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
 - 3) Elkarkeko beste bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera, eta elkarkearen ekintzen garapenaren berri uneoro jakitea.
 - 4) Batzar Orokorrean hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
 - 5) Elkarkeko estatutu hauen arabera, elkarkeko zuzendaritza organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautagai nahiz hautesle izatekoa.
 - 6) Indarrean diren legeen arabera bazkide zerrendan agertzea, eta elkarkearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
 - 7) Estatutuen eta barne araudiaren ale bana edukitzea, halakorik edukiz gero, eta zuzendaritza organoer eskakizunak eta kexak aurkeztea.
 - 8) Elkarkearen talde-ekintzetan parte hartzea, eta bazkideen erabilerarako gauzez gozatzea (liburutegiak, elkarkearen egoitza, eta abar), Zuzendaritza Batzordeak, kasuan kasu, erabakitako moduan.
 - 9) Diziplina neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek eragin dituzten arrazoier buruzko azalpenak jasotzea. Neurri horiek hartzeko arrazoier bazkideer dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarritu daitezke soilik.
 - 10) ²⁵
31. artikulua- Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:
- a) Elkarkearen helburuak gauzatzeko era aktiboan parte hartzea.
 - b) Gastuer aurre egiten laguntzeko, Batzar Orokorrek ezarritako bazkide sariak, zerga berezier eta bestelako ekarpenak ordaintzea.⁷
 - c) Estatutu hauek eta elkarkearen zuzendaritza organoek balioz hartutako erabakier betetzea eta horier men egitea.

ZIGOR ARAUAK

32. artikulua- Estatutuak edo Batzar Orokorrek nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakier behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.
- 15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik elkarkeetik betirako egozterainokoa izan daiteke zigorra, betiere 34. artikulutik eta 37. artikulura bitartekoetan, biak barne, jasotakoaren arabera.
- Ondorio horietarako, Lehendakariak zigor daitezkeen jokabideak aztertzeo ikerketa egiteko erabakier hartu ahal izango du. Ikerketa horiek Idazkaritzak eramango ditu aurrera, eta Zuzendaritza Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko dio. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik, interesdunak adierazitakoa hartu beharko da kontuan.
- Erabakier horren arrazoier emango dira beti, eta haren aurkako errekurtsioa jarri ahal izango da Batzar Orokorren aurrean, 30.1 artikuluan zehaztutako ekintzei kalterik eragin gabe.

BAZKIDE IZAERA GALTZEA

-
- e) Bazkide gazteak. 14 urtetik gorakoak izan behar dute. Sartzeko, beren legezko ordezkariaren baimena behar dute, eta hitz eta boto eskubidea izan badezakete ere Batzar Orokorrean, ezingo dute zuzendaritza kargurik bete.

²⁵ Eskubideen kapituluak aipatu beharra dago, halaber, borondatez elkarke uztan bada, eta Estatutuak berariaz jasotzen badute, dimisioa aurkezten duen bazkideak, egindako ekarpenen arabera –ohiko ordain sariez bestelakoak–, eskubidea izango duela ondasunetan duen parte-hartzea jasotzeko.

33. artikulua.- Bazkide izaera honako kasu hauetan galduko da:
1. Heriotza (edo desegitea, pertsona juridikoen kasuan).
 2. Bazkidea borondatez banantzea ²⁶.
 3. Zuzendaritza Batzordeak erabakitako zigorra dela-eta, honako kasu hauetan: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak baliozki hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea, behin eta berriro.
34. artikulua.- Bazkideren bat 33.3. artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinetan erortzen bada, Lehendakariak agindu diezaiokete Idazkariari, gertaeren berri izatearren, aurreiazko eginbide batzuk egin ditzan. Eginbide horiek ikusita, Lehendakariak ekintza bertan behera uztea edo edota zigor espedientea abian jartzea erabaki dezake.
35. artikulua.- 33.3. artikuluan zehaztutako kasuetako edozeinengatik zigor espedientea abiaraziko balitz, Idazkariak, egintzak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio dagokionari, leporatzen zaizkion salaketan berri emateko. Salaketa horiei erantzuteko, bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordeko lehenengo bilkurako gai zerrendan sartuko da gaia, eta bertan hartuko da erabaki egokia. Horretarako Batzarkideetatikko quoruma beharko da²⁷.
- Elkartea uzteko erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo Batzar Orokoro Berezian errekurtsioa aurkeztu dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteko epean ez bada Batzar horretarako deirik egiten, errekurtsio hori nahikoa izango da batzarra egiteko. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak dagokion bazkideari bazkide eskubideak kentzea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori uztea aginduko dio.
- Uzteko espedientea Batzar Orokorrari aurkeztuz gero, Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorrari interesatuak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.
36. artikulua.- Uzteko akordioa –betiere arrazoiak emanda–, dagokionari jakinaraziko zaio, eta hark, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du, bere ustez erabakia legearen edo estatutuen aurkakoa bada.
37. artikulua.- Bazkideren bati elkartea uzteko berri ematerakoan –berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako– bete gabe dituen Elkartearikiko betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUAK

38. artikulua.- Elkartearen sortze ondarea eurokoa da.²⁸
39. artikulua.- Elkarreak, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru baliabide hauek aurreikusten ditu:
- a) Zuzendaritza Batzordeak ezarritako sarrera kuotak.

²⁶ Kasu horretan estatutuan ezarri ahal izango da ondarean duen parte-hartzea kitatzeko eskubidea, egindako ekarpenen arabera –ohiko sariez bestelakoak ekarpenak–, baldin eta ondarea murrizteak ez badie hirugarrengeoi kalterik eragiten. Estatutuaren ez bada klausula hau sartzen, eta bazkideak borondatez uzten badu elkartea, ezingo du elkartearen ondarean duen parte eskatu, berak Elkarteari egindako ekarpenak jabetzaren transmisioztat hartzen baitira, eta ez mailegutzat.

Elkartea uzteko eskaera egiteko ez da modu berezirik eskatzen, nagusi baita askatasun printzipioa. Edonola ere, froga moduan, idatziz aurkeztea komeni da, hartu-agiriarekin. Ez du erantzunik jaso behar, alde baterako ekintza denez, berez baitu eragina.

Aldi baterako uztea: Estatutuek ere aurreikus dezakete egoera hori. Berriro hartzeko eskubidea gordetzen duen dimisioa da.

²⁷ Ezarri daiteke erdia gehi bat, edo 2/3.

²⁸ Gerta liteke Elkarreak ez edukitzea sortze ondarerik, eta kasu horretan, horrela adierazi beharko da.

- b) Zuzendaritza Batzordeak erabakitako aldizkako kuotak.
- c) Elkarteari dagozkion ondasun eta eskubideetatik ateratzen dituen ekoizpenak, baita legez jaso ditzakeen diru laguntzak, ondareak eta dohaintzak ere.
- d) Estatutuen helburuak kontuan harturik, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako bidezko jardueren bitartez Elkartek lortzen dituen diru sarrerak, betiere estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.

Elkartearen jarduna eta jardun ekonomikoa urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko(a)ren(a)n itxiko da.

Elkartek, jarduera ekonomikoen (zerbitzuak ematea barne) bitartez, lortzen dituen irabaziak haren helburuak betetzeko baino ezingo dira erabili. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideekin edota haiekin antzeko afektibitate erlazioan bizi diren pertsonekin ere, ez eta haien senideekin ere. Ezingo zaizkio, halaber, mozkina irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

40. artikulua- Estatutuen aldaketa bereziki xede horrekin deitutako bazkideen Batzar Orokorrean erabakiko da, Zuzendaritza Batzordeak hala erabaki duelako, bai bazkideen %.....k eskatu duelako. Dena den, kasu batean zein bestean Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidez osatutako batzorde txostengile bat izendatuko du, aldaketaren proiektua idazteko. Proiektu hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta Batzordeak berak jarriko du proiektua amaitzeko epea.
41. artikulua- Aldaketa proiektua epe barruan idatzi eta gero, Lehendakariak hurrengo Zuzendaritza Batzordearen aztergai zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu edo lantaldeari itzuliko dio, atzera ere aztertzeko.
- Proiektua onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Batzar Orokor Bereziaren aztergai zerrendan sartzea erabakiko du, edo horretarako propio egingo du Batzar Orokorrerako deia.
42. artikulua- Batzarrerako deiarekin batera, aldatuko den testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa proposamen hori Batzar Orokorreari emango zaio, baldin eta horiek batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.
- Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira, eta beste testu bat eskaini beharko dute aukeran. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrean estatutuak aldatzeko Erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean sartzan denetik aurrera baino ez du eraginik izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE ONDAREAREN APLIKAZIOA

43. artikulua- Elkartea honako arrazoi hauen ondorioz desegingo da:
1. Bazkideek nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako Batzar Orokorrean azaldu beharko da, eta bertan daudenen gehiengo absolutuaren botoak jaso beharko ditu.
 2. Kode Zibileko 39. kapituluan azaltzen diren arrazoiengatik.
 3. Epai judizial bidez.
44. artikulua- Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrean Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besterekiko elkartearen betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte ondarea, geratzen bada behintzat, honako hauei emango zaie²⁹
.....
.....

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eratze agirian behin-behinean izendatuta agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egingo den lehenengo Batzar Orokorraren mende jarri beharko dute beren izendapena.

AZKEN XEDAPENA

Batzar Orokorrek barne araudia onartu ahal izango du, Estatutu hauek garatzeko asmoz. Horrek inolaz ere ez ditu estatutuetako aginduak aldatuko.

²⁹ Geratzen den elkarte ondarea ezingo da, inola ere, bazkideen artean banatu. Gelditzen denak ezingo du balio gabe utzi elkartearen irabazi asmorik gabeko izaera, eta oro har ezarri daiteke kopuru hori irabazi asmorik gabeko elkarte bati emango zaiola.

Bazkideek elkarte borondatez uzten duten kasuetarako aurreikusitakoa aplikatu ahal izango da desegite kasuetan. Bazkide batek elkarte borondatez utziz gero edo elkarte deseginez gero, estatutuek ezarri ahal izango dute bazkideek hasierako ondarean duten parte-hartzea edo egindako beste ekarpen batzuk jaso ahal izango dituztela, elkarteko kide izateagatik ordaindu dituen kuotak kontuan hartu gabe, Estatutuetan ezartzen den baldintzetan, irismenean eta mugen barruan. Hori guztia, baldin eta ondarea murrizteak ez badie hirugarrengeoi kalterik eragiten.

Kasu horretan, bazkideei aipatutako ekarpenak eman ondoren, gelditzen denaren helburuak ezingo du balio gabe utzi elkartearen irabazi asmorik gabeko izaera.